

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BILARKO UDALA

Behin betiko onestea 1/2025 kreditu gehigarriaren espedientea

Bat etorri Toki Erakundearen Aurrekontuaren 3/2004 Foru Arauak 34.3 eta 15. artikuluetan xedatutakoarekin, ez denez inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu kreditua gehitzeko 1/2025 espedienteari hasierako onespena ematen dion erabakiaren aurka, espediente hori behin betiko onesten da, honela:

Espediente hori behin betiko onetsita geratzen da, era honetan:

GASTUEN APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
342.211000	KIROL INSTALAZIOAK MANTENTZEA (IGERILEKUAK KONPONTZEA, ASEGURURIK GABE)	1.500,00 euro
338.625990	KOMUN ERAMANGARRIA EROSTEA	2.000,00 euro
330.22607	DANTZARIA ORKESTRA	1.500,00 euro
1532.601004	FORU PLANAREN PROIEKTUA, DIRUZ LAGUNDU GABEKO ZATIA	5.750,00 euro
GUZTIRA		10.750,00 €

Zenbateko hori honako baliabide hauen bidez finantzatuko da, eta espedientea parekatuta eta defizitik gabe geratuko da:

Handitu beharreko sarreraren partidak edo erabiliko den diruzaintzako gerakina:

DIRU SARREREN APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
87001	DIRUZAINZAKO GERAKINA - GASTU OROKORRAK	10.750,00 euro
GUZTIRA		10.750,00 €

Espedientea finantzatu behar duten baliabideen batura, guztira (diru sarrerak, diruzaintzako gerakina eta gastu txikiagoak), 10.750,00 euro da, eta bat dator handitu beharreko gastuen guztizko zenbatekoarekin.

Udal honen aurrekontu orokorra aldatzea behin betiko onesten duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Guztiekin jakin dezaten argitaratzen da.

Bilar, 2025eko ekainaren 20a

Alkate-Lehendakaria
ENRIQUE PÉREZ MAZO